Alkateordetza. San Martzial plaza, 4 | Tel. 010 - 943481356 | ekialdekobarrutia@donostia.eus | www.donostia.eus
20017 Donostia / San Sebastián

## GOBERNU BATZORDEARI

Ekialdeko barrutia Altza, Intxaurrondo eta Mirakruz Bidebietako lurrek osatzen dute.

Ekialdeko barrutia Donostiako Barrutien Organo Araudia arautzen du. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen 2015eko martxoaren 26an, eta GAOn 2015eko apirilaren 13an argitaratu zen (67. zenbakia).

Donostiako Barrutien Organo Araudiaren 14.artikulua, Barrutiko Udal Batzarra arautzen duenak, 2020ko urtarrilaren 31ko Plenoak aldatu zuen (2020ko uztailaren 13ko GAO, 131.zenbakia).

Gaur egun, Donostiako Barrutien Organo Araudiaren 14. artikuluak ezartzen du Barrutiko Udal Batzarra honako hemeretzi kidek osatzen dutela:

— Barrutiko Batzarreko zinegotzi-lehendakaria.

—Barrutiko Batzarreko zinegotzilehendakariordea.

— Zazpi mahaikide, udal-ordezkaritza duten talde politikoek edo, hala badagokio, tokihauteskundeetan parte hartu duten alderdi politikoek edo hauteskunde-elkarteek proposatuta.

— Auzo-elkarteetako bost ordezkari.

— Arlo entitateetako bost ordezkari.

Barrutiko Batzarreko kideen agintaldiaren iraupenari dagokionez, Donostiako Barrutien Organo Araudiaren 15. l) artikuluak adierazten du Udalbatzaren agintaldiarekin bat etorriko dela (...).

2023ko maiatzaren 28an egin ziren Udalbatzako hauteskundeak, eta 2023ko ekainaren 17an eratu zen. Beraz, beharrezkoa da Donostiako Ekialdeko Barrutiko Batzar berria eratzea.

Horretarako, alkatetzaren 2023ko abuztuaren 17ko ebazpenaren bidez, Ekialdeko Barrutiko zinegotzi-lehendakaria eta zinegotzi lehendariordea izendatu ziren. Ebazpen hori 2023ko abuztuaren 29an argitaratu zen GAOn (166.zenbakia).

## A LA JUNTA DE GOBIERNO

El Distrito Este lo conforman los territorios de Altza, Intxaurrondo y Miracruz-Bidebieta.

El Distrito Este se rige por el Reglamento Orgánico de los Distritos de San Sebastián que fue aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián el 26 de marzo de 2015 y publicado en el BOG el 13 de abril de 2015 (número 67).

El artículo 14 del Reglamento Orgánico de Distritos de San Sebastián, que regula la Junta Municipal del Distrito, fue modificado por el Pleno de 31 de enero de 2020 (BOG el 13 de julio de 2020, número 131).

Actualmente, el artículo 14 del Reglamento Orgánico de los Distritos de San Sebastián establece que la Junta Municipal del Distrito está compuesta por los siguientes diecinueve miembros:

— La persona Concejal-Presidente de la Junta de Distrito.

— La persona Concejal-Vicepresidente de la Junta de Distrito.

— Siete Vocales, a propuesta de los grupos políticos con representación municipal o en su caso de partidos políticos o agrupaciones electorales que hayan concurrido a las elecciones locales.

— Cinco representantes de asociaciones vecinales.

— Cinco representantes de entidades sectoriales.

En cuanto a la duración del mandato de los miembros de la Junta de Distrito el artículo 15 l) del Reglamento Orgánico de los Distritos de San Sebastián señala que coincidirá con el de la Corporación (...).

El 28 de mayo de 2023 se celebraron las elecciones de la Corporación Municipal y ésta se consituye el 17 de junio de 2023. Por lo tanto, es necesaria la constitución de la nueva Junta Municipal del Distrito Este de San Sebastián.

A estos efectos, mediante resolución de alcaldía de Fecha de 17 de agosto de 2023, se nombró al Concejal Presidente y al Concejal Vicepresidente del Distrito Este. Esta resolución se publicó el 29 de agosto de 2023 en el BOG (número 166).

Halaber, udal-ordezkaritza duten talde politikoek izendatutako zazpi kideen (eta horien ordezkoen) izendapenak jakinarazi ziren.

Horregatik, auzo-elkarteen bost ordezkariak eta arlo-entitateen beste bost ordezkariak izendatzeko, 2023ko urriaren 24an GAOn argitaratu zen (58. zenbakia) Ekialdeko Barrutiko Batzarrerako hauteskundeak deitzeko Alkatetzaren 2023ko urriaren 17ko Ebazpena. Ebazpen horren ondorioz, auzo-elkarteen eta arlo-entitateen ordezkari izango diren hamar kideak hautatzeko prozesua hasi zen, eta 2023ko azaroaren 25ean udaletxean (Ijentea 1) izandako hauteskundeetan lortutako emaitzekin amaitu zen.

Hauteskundeen emaitza hau izan da:

**Auzo-elkarteak**:

1.- Herripe auzo-elkartea: 3 boto.

2.- Oleta auzoko Auzo Elkartea: 3 boto.

3.- Izbe: 2 boto.

4.- Buenavista-elkartea: boto 1.

5.- Altzako V. A., Elkartasuna: boto 1.

**Arlo-entitateak:**

1.- Bizarrain Euskara Elkartea: 5 boto.

2.- Plazandreok: 5 boto.

3.- Altzania Kultur Elkartea: 4 boto.

4. Sporting Herrera: 4 boto.

5.- Altzathletic Kultur Kirol Elkartea: 3 boto.

6. Ur polo zaleak WP Donostia: boto 1.

7.- Mestiza: boto 1.

Gainera, Donostiako Barrutien Organo Araudiaren 15. artikuluko j) idatz-zatiak honako hau adierazten du: *"Hauteskundeetan izandako emaitzak kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, erreklamazioen aldia amaitu ondorengo lehen bilkuran, barrutiko kide izendatuko ditu, barruti bakoitzean, boto gehien* izan dituzten auzo elkarteetako bost ordezkariak eta gainerako entitateetako bost ordezkariak".

Beraz, azaldutakoaren arabera, eta kontuan hartuta Donostiako Ekialdeko Barrutiko Batzarreko auzo-elkarteen bost ordezkari eta arlo-entitateen bost ordezkari izendatzeko

Además, se comunicaron los nombramientos de los siete vocales (y sus suplentes) designados por los grupos políticos con representación municipal.

A fin de nombrar los cinco representantes de las asociaciones vecinales y los otros cinco representantes de las entidades sectoriales, el 24 de octubre de 2023 se publicó en el BOG (n·mero 58) la Resolución de Alcaldía del 17 de octubre de 2023 de convocatoria de elecciones para la Junta de Distrito Este. La resolución dio lugar al inicio del proceso de elección de los diez vocales representantes de las asociaciones vecinales y entidades sectoriales, que finalizó con los resultados obtenidos en las elecciones que tuvieron lugar el 25 de noviembre de 2023 en la Casa Consistorial (Ijentea nº1).

El resultado electoral ha sido el siguiente:

**Asociaciones vecinales:**

1.- Herripe auzo-elkartea: 3 votos.

2.-Asociación de Vecinos del Barrio de Oleta:3 votos

3.- Izbe: 2 votos.

4.- Buenavista-elkartea: 1 voto.

5.- A. V V de Altza, Elkartasuna: 1 voto.

**Entidades sectoriales:**

1.- Bizarrain Euskara Elkartea: 5 votos.

2.- Plazandreok: 5 votos.

3.- Altzania Kultur Elkartea: 4 votos.

4. Sporting de Herrera: 4 votos.

5.- Altzathletic Asociación Deportivo Cultural:3 votos.

6. Ur polo zaleak WP Donostia: 1 voto.

7.- Mestiza: 1 voto.

Asimismo, el artículo 15 apartado j) del Reglamento Orgánico de los Distritos de San Sebastián indica que: *"A la vista de los resultados obtenidos en el proceso electoral, la Junta de Gobierno Local, en la primera sesión que se celebre, una vez finalizado el período de reclamaciones, nombrará como miembros de Distrito a los cinco representantes de las asociaciones vecinales con mayor número de votos y a los cinco representantes del resto de entidades con mayor número de votos, por cada uno de los Distritos".*

Por lo tanto, según lo expuesto y a tenor de los resultados de las elecciones para la designación de los cinco miembros representantes de las asociaciones vecinales y los cinco miembros

hauteskundeen emaitzak, Gobernantza Ireki, Digital eta Kolaboratiboko zinegotzi ordezkariak (2023ko uztailaren 6ko Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta), Tokiko Gobernu Batzarrari honako erabaki hauek hartzea proposatu dio:

**ERABAKIAK**

**LEHENDABIZIKOA-.** Honako hauek izendatzea Ekialdeko Barrutiko Udal Batzarreko kide boto gehien dituzten auzo-elkarteetako bost ordezkariak:

1.- José Angel Apaolaza Udaquiola, Herripe auzoelkartearen izenean.

2.- José Eugenio Rojo Pol Asociación de Vecinos del Barrio de Oletaren izenean.

3.- Harritokieta Larralaga Alzaga, Izberen izenean.

4.- Diego Moran Ortiz, Buenavista-elkartearen izenean.

5.- Mari Mar Martinez Corugueira, Elkartasuna, Altzako A. V V.aren izenean.

**BIGARRENA.-** Honako hauek izendatzea Ekialdeko Barrutiko Udal Batzarreko kide, boto gehien dituzten gainerako erakundeetako bost ordezkari:

1.- Izko Lekuona Sagarzazu Bizarrain Euskara Elkartearen izenean.

2.-Maria Mercedes Fernández Boga Plazandreoken izenean.

3.- Manex Ralla Arregi Altzania Kultur Elkartearen izenean.

4.- Miguel Angel Díez Bustos de Sporting de Herreraren izenean.

5.- Enrique Sánchez Blázquez Altzathletic Asociación Deportiva Culturalen izenean.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udalbatzari horren berri ematea egiten duen lehenengo bilkuran.

representantes de las entidades sectoriales de la Junta de Distrito Este de San Sebastián, esta Concejala Delegada de Gobernanza Abierta, Digital y Colaborativa (por delegación de la Junta de Gobierno Local de 6 de julio de 2023) propone a la Junta de Gobierno Local, la adopción de los siguientes

**ACUERDOS**

**PRIMERO.-** Nombrar como miembros de la Junta Municipal del Distrito Este a los cinco representantes de las asociaciones vecinales con mayor número de votos:

1.- José Angel Apaolaza Udaquiola en representación de Herripe auzo-elkartea.

2.- José Eugenio Rojo Pol en representación de Asociación de Vecinos del Barrio de Oleta.

3.- Harritokieta Larrañaga Alzaga en representación de Izbe.

4.- Diego Moran Ortiz en representación de Buenavista-elkartea.

5.- Mari Mar Martinez Corugueira en representación de A. V V de Altza, Elkartasuna.

**SEGUNDO**.- Nombrar como miembros de la Junta Municipal del Distrito Este a los cinco representantes de las entidades sectoriales con mayor número de votos a:

1.- Izko Lekuona Sagarzazu en representación de Bizarrain Euskara Elkartea.

2.-Maria Mercedes Fernández Boga en representación de Plazandreok.

3.- Manex Ralla Arregi en representación de Altzania Kultur Elkartea.

4.- Miguel Angel Díez Bustos en representación de Sporting de Herrera.

5.- Enrique Sánchez Blázquez en representación de Altzathletic Asociación Deportivo Cultural.

**TERCERO.-** Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como dar cuenta del mismo al Pleno de la Corporación en la primera sesión que celebre.

Donostian, sinaduraren datan (digitalki sinatuta)

Herri Partaidetza eta Arretarako Zerbitzuaren Burua
Sin: Amaia Agirreolea Gómez

Lehendakaritza Zuzendaritzako Zuzendaria
Sin.: Manu Narváez Morales

Gobernantza Ireki Digital eta Kolaboratiboko Zinegotzi Ordezkaria
Sin.: Ana López Loyarte

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Amaia Agirreolea Gomez (03/01/2024 10:17 CET), Manu Narvaez (04/01/2024 10:33 CET)
Ana Lopez Loyarte (04/01/2024 10:37 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 96ZP-1RDC-V5AM-5852